

Bailando a golpes

Euskal Dokumentalaren Astea

A Aretoa

2025eko urriaren 21a

19:30ean



Dokumental honek, historian lehen aldiz, erakusten du bere bizitza banda baten taupadatzat, abesti baten pultsutzat jotzen den instrumentuari —bateriari— eskaintzen dioten pertsonen bizitza. Dokumental honek transmititzen du zein zaila den bizitza osoa etengabe eboluzionatzen ari den eta beste instrumentu batzuek baino ikusgarritasun txikiagoa duen tresna bati eskaintzea. Ikusiko dugunez, bateriajoleen ezaugarri komuna beraien instrumentuarekiko duten pasioa eta zentzugabekeria da. Azken finean, *Bailando a Golpes* dokumentalak ilusioak, ahalegina, etengabeko lana eta zintzotasuna frustrazioarekin eta mota guztietako emozio nahasiekin uztartzen diren istorioak islatzen ditu.

Fitxa teknikoa

- **Zuzendaritza:** Álvaro Larrory
- **Gidoia :** Álvaro Larrory
- **Ekoizpena:** Sonora Estudios
- **Argazkigintza:** Javier Ortega Orpi
- **Muntaia:** Álvaro Herrero
- **Musika:** Marcel Bagés, David Soler

- **Soinua:** Martín Guridi, Ane Zugaza
- **Iraupena:** 64 m
- **Hizkuntza:** Gaztelania

Zuzendaria

ALVARO LARRORY

Vitoria-Gasteizko musika eszenako beteranoa da. Tapioca izeneko areto mitikoaren jabea, DJa eta programatzailea izan zen. Bateriajole gisa, Gasteizko banda klasikoetan aritu da, hala nola **Sexpir**, **In-Albis**, garaje estiloa lantzen zuten **Acapulco Gold Diggers 9** eta **The Brontës** (2014–2016) taldeetan. **Ortophonk** taldearekin ere kolaboratu zuen lehen garaietan, bateria eta ahotsa uztartuz. Ondoren, **Pájaro 1 Pájaro 2** bikotean aritu zen. 2023an, tokiko jazz eszenan ibilbide berri bati ekin zion, **Colectibop** eta **Cheek to Cheek Jazz Quartet** taldeetako kide bihurtuz.

Sarrera

Sarrera librea edukiera bete arte.

Irudien galeria

•



Zabaldu



Fundación Vital Fundazioa

Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz

945 776 858

info@fundacionvital.eus